

Subiranismoa eskuin muturraren oldarraaldiaren aurrian

Sovereign peoples
in the European
Union

VII. Eskola Subiranista

Herri burujabeak
Europar
Batasunean

Pobles
sobirans a la
Unió Europea

Pobos
soberanos na
Unión Europea

Pueblos
soberanos en la
Unión Europea

non zer nork

4

Erreportajea
VII. Eskola Subiranista

8

Analisia
Claves políticas del año
Eba Blanco de Angulo

10

Hausnarketa
Euskal Hezkuntza sistema
Iban Asenjo Garde

12

Elkarrizketa
Mohamed Fadel Brahim
Frente Polisario

Alkartasuna

Alkartasuna Fundazioaren
aldizkaria

2025eko aldizkaria
Portuetxe 14, 3. 6. bul | Donostia
D.L./L.G. SS 714/88

Koordinatzailea

Hugo Uruñuela Nicolás

Erredakzioa

Mikel Oraá Díaz de Heredia

Maketazioa

Pictogram Diseinu & Komunikazioa

Euskal agenda Agenda vasca

3 milioi pertsona inguruko herri txikia gara. Hala ere, gure historia, Europako herririk zaharrenetakoa bezala, zabala da. Gure historia-ren gero eta zati handiagoa egitatea da, baina mitologiak eta kondairek garrantzitsuak izaten jarraitzen dute gurean. Mito horietako bat da ez garela inoiz konkistatuak izan. Historian zehar asko izan dira Euskal Herria zapaltzeko saiakerak. Inposaketa eta jazarpena, izateko eta bizirauteko gure borondatea hautsi nahian, nahiz eta beste kasu batzuetan elkarbitza egon, eta kultura-trukea eman. Hala ere, inoiz ez zen “konkistatua” “konkistatzailea” asimilatzen iritsiko. Eta hori, segur aski, izan da Euskal Herriak ahalegin handia egin duelako beti bere kultura-nortasunaren ikurrei, nazio komunitate bateko kide izatearen sentimenduari, eta bere autogobernu-erakundeei eusteko. Nahiz eta nazioa zatituta egon.

Nazionalismo baztertzailen, olatu atzerakoi eta autoritarioaren, eta neoliberalismo indibidualista eta antisozialaren aurka. Gure borondate politikoa menpekotasunik gabe, herri xedearekin, eta interes eta asmo legitimoetatik, soberanismo aurrerakoitik eraikuntza sozial eta nazionalen aurrera egitea egokitu zaigu. Herri solidario gisa, arazo globaletatik at egon gabe. 2026an emantzipazio nazionalerako eta justizia sozialerako bidean dagoen Euskal Herria izaten jarraitzea horren menpe dago funtsean. Urte berri on!

Somos un pueblo pequeño de aproximadamente 3 millones de personas. Sin embargo, nuestra historia como uno de los pueblos más antiguos de Europa es vasta. Cada vez más parte de nuestra historia son hechos probados, pero la mitología y las leyendas siguen siendo importantes en nuestro pueblo. Uno de esos mitos es que jamás fuimos conquistados. A lo largo de la historia, muchos han sido los intentos de sojuzgar al pueblo vasco. De imponernos pretendiendo quebrar la voluntad de ser y pervivir, aunque en otros casos hubo convivencia, y existió un intercambio cultural. Sin embargo, en ningún momento se habría llegado a la asimilación del “conquistado” hacia el “conquistador”. Y eso es probablemente porque el pueblo vasco, viene haciendo un enorme esfuerzo para mantener sus señas de identidad cultural, sentido de pertenencia a una comunidad nacional e instituciones de autogobierno propias. Pese a sobrevivir con el país troceado territorialmente.

Frente a los nacionalismos excluyentes, a la ola reaccionaria y autoritaria, al neoliberalismo individualista y antisocial. Desde los legítimos intereses y aspiración de ejercer nuestra voluntad política sin subordinación, con sentido de país, toca avanzar en la construcción social y nacional desde el soberanismo progresista. Como pueblo solidario, sin ser ajenos a los problemas globales. Que en 2026 sigamos siendo un pueblo en camino hacia la emancipación nacional y justicia social depende fundamentalmente de ello. Urte berri on!

Estaturik gabeko nazioen subiranismoa giltzarri da eskuin muturrari aurre egiteko



Forum Soberanista, Coppieters Foundation, EHU, Parte Hartuz, eta Alkartasuna Fundazioak antolatuta, Azaroaren 28an eta 29an Bilbon burutu zen Eskola Subiranistaren VII. edizioa. Egun eta erdiz, Euskal Herriko, Estatuko, zein nazioarteko fundazio eta alderdi politikoetako ordezkariak, estaturik gabeko nazioen subiranismoaren osasunaz luze eztabaidatu zuten.

Eskola Subiranista, ezker subiranistako 20 alderdi, eragile, sindikatu eta fundazio baino gehiago biltzen dituen Forum Subiranistak antolatzen duen topagunea da. Helburua gizartearen eragitea da, eta, horrekin batera, subiranismoaren inguruko eztabaidak krisian eta etengabe aldatzen ari den orainaldi baten beharretara eta eskakizunetara eramatea.

Autoritarismo olatu globalaren eragina aztertu zuen batez ere Eskola Subiranistaren Bilboko edizioak. Hainbat ponentzia, mahai-inguru eta lantaldean subiranotasuna zeharkako ikuspegi tematikoetatik aztertu zen, hala nola, autodeterminazioa, eraldaketa sozioekonomikoa, krisi bioklimatikoa, migrazioak eta feminismoa.

“El soberanismo es conflicto; y por eso tenemos que utilizarlo para materializar los derechos políticos de las naciones sin Estado”

Paolo Gerbaudo

Ostiral arratsaldean, eta larunbat goiz eta arratsaldeko lanaldian banatu zen programa mamitsua. Paolo Gerbaudo, subiranotasunean eta estatuan espezializatutako intelektual italiarraren hitzaldia-ekin hasi zen zuzenean Eskola eta lan-egitaraua. Bere eskuhartzean, Gerbaudok subiranotasunaren analisi historikoa egin zuen abiapuntu gisa, baina batez ere, subiranotasunak gaurkotetasunaren testuinguruan zehatz kokatu zuen. Eskuin muturraren oldarraldiaren aurrean, baita norabide batzuk proposatu ere. *“Subiranotasuna gatazka da; eta horregatik erabili behar dugu Estaturik gabeko nazioen eskubide politikoak gauzatzeko”,* adierazi zuen besteak beste.



Gerbaudo bukatzean, Eskolaren antolakuntzatik, Xabier Macías, Coppieters Fundazioaren Lehen-dakariordeak, Sandra Llano, eta Miquel Rosselló, Forum Soberanista batzordearen kideek harrera eta aurkezpena egin zieten parte-hartzaile guztiei. Tarte horretan, lehenik adostutako Palestinaren aldeko, eta jarrera eta eraso matxisten aurkako adierazpenak irakurri zituzten.

Jarraian lehen mahai-ingurua eratu zen, *“Europako herriak eta subiranotasuna XXI. mendean”* lelopean, Maria del Rio, EHuko Zuzenbide irakasle, eta Bilboko EH Bilduko zinegotziak zuzenduta. Bertan, Jordi Muñoz, Bartzelona Unibertsitateko Zientzia Politikoko irakasleak, Hervor Pálsdóttir, Tjóðveldi alderdiko Feroe Uharteetako Parlamentuko diputatuak, Eraitz Saez de Egilaz, abokatua eta EH Bil-

duko eusko legebiltzarkideak, lehen aipatutako Xabier Macias, psikologo sozialak, eta Carmen Peña, Nazioarteko Harremanetan graduatuak eta Drago Canarias erakundearen bozeramaile nazionalak eztabaidatu zuten.

Estatu gabeko nazioen eskubide demokrati-koen etengabeko ukapena azaleratu zen, Estatu Espainolaren eta euskal, katalan eta kanariar herrien arteko harreman zailez bitartez. Eta Europa mailan, Danimarkako erresumatik Feroe Irletara, non, 1948tik nolabaiteko barne-autogobernu maila badute ere, Danimarkako Estatuak funtsezko gaiez arduratzen jarraitzen baitu, hala nola kanpo-harremanez, finantzez eta defentsaz. *“Feroe Irlak nazio independentea izatea kontu demokratikoa da”*, adierazi zuen Palsdóttirrek. European subiranotasunaren aldeko aldarrikapenen bat duten lurraldeetan, 200 milioi pertsona baino gehiago bizi direla aipatu zen. Zentzu horretan, nazionalista inperial zapaltzaileen eta nazionalista zapalduen arteko aldea beti agerian uztea ezinbestekoa dela azaldu zuten. Subiranotasuna aldarrikatzeko orduan jarrera proaktiboa izatea eskatu zen, eta ez erreaktiboa, estatu-nazioek subiranotasun hori etengabe ukatzen dutelako.

Euskal Herria, Katalunia, Galizia, baina baita beste herri batzuetako mugimendu subiranistak ere, kanariarra kasu, Espainiako Estatuaren alternatiba demokratizatzailea dira. Herritarren eguneroko bizi-baldintzak hobetzeko exijentziarekin batera doan identitate-aldarrikapen batetik. Euskal Herriko kasuan, Saez de Egilazen arabera, *“Estatua ez da inoiz joan, eta gainera, ustezko ongizate sistema batean oinarrituta dago, gizon langilearentzat sortua, non emakumea ordaindu gabeko lanean, gizonak zerbitzatzeko bizi den”*. Bere aldetik, Muñozek Kataluniako auzian nonahi dagoen Estatuaren ideia horretan sakondu zuen. *“Eskuina munduko Estatueta itzuli da nabarmen. Arantzeletan, mugetan, militarizazioan eta abarretan ikusten dugu. Bistan da badagoela atzera egite nostalgiko bat, nazioarteko politika gordintzen duena, adibidez, xenofobia normalizatuz. Estatu-nazionalismoak indartzen ditu, eta gure minorizazioa azkartu nahi du politika horrek, gu desagerrarazteko. Ofentsiba honen aurrean, atzerakoien aurkako aliantzak sustatu*

behar ditugu, ahalik eta kohesio sozial handiena-rekin, jakitun izanik mendeetako arazoak ez direla bi urtetan konpontzen”. Gainera, espainiar kolonialismoaren ondorio suntsitzaileak zehaztu ziren, Kanariar irlen kasuan bezala. Hots, mugarik gabeko garapen turistiko basatian oinarritutako eredua. *“Sistemari arrakala guztiak ikusten ari zaizkio kanarietan”*, aipatu zuen Peñak. *“Guretzat jasanezina da gure herrian Espainiako Estatuak eta atzerriko eliteek inposatutako produkzio-egoeraren arabera bizitzea”*.



Larunbatera pasata, Eskolaren programazioari beste mahai-inguru batekin heldu zitzaion, hain zuzen ere, Franco hil zenetik 50 urteek Estatuan eta European izan dituzten eraginak eta ondorioak aztertzeko. Honakoan Marta Cid, psikologoa, Kataluniako Generalitateko Hezkuntza kontseilari ohi eta Irla Fundazioko kideak arin gidatua. Hasieran Raquel Varela, Lisboako Unibertsitate Novako historialariaren gogoeta, bideo baten bidez jaso zen. Hortik aurrera auditorioan zegoen ordezkaritza oparo bati hitza eman zitzaion: Mertxe Aizpurua, kazetaria eta EH Bilduko diputatua, Marta Rovira, soziologo eta idazle katalana, Montse Prado, BNGko diputatua Galiziako Parlamentuan, Mateu Morro, historialaria, Mallorcako Alderdi Sozialistako idazkari nagusi ohi eta egun Consell Politic de Més per Mallorcako kidea, Alberto Rodríguez, Drago Canariaseko bozeramaile eta diputatu ohi, eta Toni Gisbert, historialaria eta Compromíseko Zuzendaritza Nazionaleko kidea.

Aizpuruak *“euskaldun bakoitzaren bizipenetatik, hau da autokonbentzimendutik”* hasi zuen bere

eskuhartzea. *“Lehen egunetik ekintzek frogatu zuten trantsizioa faltsua izan zela. Gure herrirako aldaketarik ez zetorrela. Benetako hausturarik ez zegoela. Botere egitura guztiak irmo lotuta utzi zituen Francok. Bera ohean hil zen, baina aldiz frankismoa ez. Oinordekoak frankista sartu ziren ohera eta demokrata jaiki egunsentian”*. Hortik aurrera, gaur egun *“PSOE eta PPrentzat oso eroso zen bipartidismoa pikutara joan da eta hori, nazioaniztasunak eragin du argi eta garbi”*. Bitartean, VOX, *“gera zibilaren eta geroko frankismoaren garaile bezala sentitzen, eta azaltzen da”*. Diputatuaren iritziz, Estatua ez da benetan inoiz demokratizatuko, baina horrek ez du esan nahi *“gure eskubide politikoak aurrera eramateko zirrikituak aprobetxatu behar ez ditugunik. Euskal Herriko agenda subiranistan, estatus politiko berria dago. Etxebizitzak eskubide soziala izan behar du, hezkuntza eta osasuna diren bezala”*.

Rovirak, berriz, kultura-munduaren garrantzia nabarmendu zuen, lehenik eta behin, eta Kataluniako ikasleak gero, nazio eraikuntzaren inguruan mugiarazteko eragile gisa. *“Pujolismoa hamarkada luzez saiatu zen Kataluniak trantsizioan irabazi izanaren sentsazioa gizarteari helarazten, independentismoaren aldarrikapena gizarte zibilaren zati bati uzten. Hala eta guztiz ere, bizirik jarraitzen dugu eta eustea eraikitzea da, eta alderantziz”*.

Galiziako kasuaz mintzatu zen Pradok. Bere irakurketaren arabera, Estatuan interes geopolitikoak gailendu ziren herri eskubide demokratikoen ginetik. Komunismoari eustearren, CIA estatubatuarraren laguntzarekin, kapitalismo monopolistan txertatutako ezker moderatua sortu zuten, PSOErekin Suresneseko biltzarraren ondoren ikusi zen bezala. *“Helburua Estatua Europako estandarren arabera moldatzea zen, merkatu bateratuan sar zedin. Horrek Galiziaren hondamena ekarri du, herrialde aberatsa izanik pobre gisa bizi baita”*, azaldu zuen.

PPren 20 urteko ereduak eraman zituen Gisberten minutu asko. *“Eraikuntzan eta turismoan oinarritua, Valentziako Erkidegoa mapan jartzeko. Botere politikoaren eta botere ekonomikoaren arteko harreman intimoak, jende asko kanpoan utzi zuen. Eta horregatik, eliteek eztabaida itxia zela uste*

bazuten ere, Valentzia aldeko gizartearen zati batek eredu hori autoritarismoarekin identifikatzen du demokraziarekin baino”. Ezkerraren erronka, kontakizun eta selfie politika baten erdian sinesgarritasuna irabaztea da bere esanetan, *“ez baitugu boterea soilik gobernura iristearekin”*. Hemendik aurrera, *“zaila bada ere, proiektu konfederalaren inguruan serio eztabaidatu beharko da. Eta era berean, estatuko nazio desberdinen arteko benetako erlazio sakonaz, eta ez “egungo noizbehinkako harremanaz”*.

“Balear Uharteak periferiaren periferia gara Espainiako Estatuarentzat”, adierazi zuen Morrok. *“1,2 milioi biztanlerentzat 18 milioi turista dituen eredu ekonomiko harraparia pairatzen dugu egunero. Turismo basatiak aniztasun ekonomikoa galtzea eta lurraldea eta ingurumena suntsitzea dakar. Desegituratze eta desnazionalizazio maila hori ez zuten lortu militar frankistek ere”*, gehitu zuen. Horren aurrean, *“aliantzak eta konfluentziak behar ditugu”* estatuaren arrakalak aprobetxatzeko. Estrategia kultural bat planteatzea estrategia politikotik banaezina da. *“Ez da nahikoa erakundeetan egotea, jendearengandik oso hurbil dauden erakunde politikoak garatzea baizik”*. Antzeko ildotik jo zuen Rodriguezek, estatuaren aparatuen erreprezioak, *“eguzki eta hondartza”* ereduaren desarrollismoarekin batera, demokraziaren hasieran mugimendu sozial eta sindikal sutsua zen Kanarietako herria deuseztatu zuela gogoratu zuenean.



Larunbateko mahai-ingurua bukatuta, Eskolaren osoko bilkura lau tailerretan banatu zen. Taldeka,

“Autodeterminazioaren eta nazio eta hizkuntza aniztasun aldeko borroka Europan”, “Subiranismoa eta gizartearen beharrezko eraldaketa sozioekonomikoa”, “Ezker subiranistak krisi bioklimatikoaren aurrean”, eta “Migrazioak eta subiranotasuna. Behar ditugun aliantza berrien bi-deak”, jorratu ziren.



Arratsaldera helduta, bazkaldu ostean, hirugarren eta azken mahai-ingurua etorri zen. Politologo, eta Gasteizko EH Bildu zinegotzi, Aitziber Salazar Arres-tik, *“Subiranotasuna nostalgiaren eta autoritarismoaren aurrean”* zuzendu zuen. Bertan Mònica Clua, Zientzia Politikoko irakaslea Pompeu Fabra Unibertsitatean, Rodrigo Nunes, Teoria Politikoko irakaslea, Idoia Arreaza politologoa eta Tirant Lo Blanc-eko idazkari nagusia eta Floren Aoiz, idazlea eta Iratzar Fundazioko presidentea aritu ziren.

Euskal Herritik Aoizek hibridazioaz ohartarazi zuen, eskuin muturrak, nahiz eta beste esanahi bat eman, ere subiranismoa terminoa erabiltzearen arriskuaz, alegia. *“Adibidez, nazi bat erraz identifikatu dezakegu eskuin muturrarekin, baina zer gertatzen da transfobo batekin? Pertsona batzuentzat identifikazio hori ez da hain zuzena”*, argitu zuen. Antzekoa gertatzen da subiranotasunarekin, hitz bera, forma anitzekoa izan daitekeela eta ezkerrarentzat arriskutsua da.

“Adi egon gaitezen zeren eta jada ez daude kapitalaren aurpegi tradizionalak”, ohartarazi zuen ere Cluak beretik. *“Azken hamarkadetan porrot egin ondoren, neoliberalismoaren berrindartze*

nabarmena bizi dugu egun. Teknologia berriek eta finantza-kapitalak finantzatzeko eta artikulatzeko dute liberalismo berri hori, baina komentziazko ezkontzan dauden betiko fatxak dira”. Nunesek hortik jarraitu zuen: *“orain subiranotasunari buruzko diskurtsoa eskuinetik dator ezkerretik baino gehiago. Mundu mailako globalizazio prozesua mehatxua da oligarkientzat, eta belarri tente jarri dira”*.

Arreaza gazteak bere adinekoen egoeraren inguruan argi mintzatu zen. Gizartea eskuin muturrerantz biratzea, ez da bapateko fenomeno. *“Eskuinak eta eskuin muturrak eraiki dute azken hamabost urteotan. Krisian dagoen identitatea sortu eta esplotatu dute, eta azkenean, identitate hori baztertzailerik da oso. Gazteria muturreraino prekarizatu dute hura zapuzteko eta sortu duten hutsune ikaragarria, eskuin muturrak betetzen du zuzenean”*. Sare sozialak erabiltzen dituzte *“gizon gazteei zuzendutako mezuak plazaratzeko: bere egoeraren errua pribilegio bila dabilen emakumearena eta lana kentzen dioten etorkinena da. Arazoa bestean dago beti. Diskurtso antifeminista eta xenofobo hori da eskuin muturra gazteengan sartzeko atea, hamarkadetan boto-emale fidelak izango direnak patrikan sartzeko”*, gehitu zuen.



Azkenik, Eskolaren egitaraua bukatzeko, *“Ezker subiranistaren zereginak joera autoritarioaren aurrean”* talde dinamika burutu zen. Eskola Subiranistan azaldutakoaren arabera, oso aberasgarriak diren ñabardura eta ikuspuntu ezberdinak medio, argi geratu zen Estaturik gabeko nazioek aldarrikatzen duten subiranismoak, autoritarismoa eta eskuin muturra geldiarazteko giltzarri izaten jarrai dezakeela.

Claves políticas del año

Somos un país vibrante y es muy complicado resumir los acontecimientos políticos de todo un año en un par de páginas. No obstante, resulta imprescindible reflexionar sobre algunas cuestiones estratégicas de la agenda vasca, asumiendo el riesgo de dejar otras muchas sin mencionar.



Acceso universal a la vivienda

Sólo en la CAV, hay 80.000 demandantes de vivienda de alquiler protegido en Etxebide. Los precios de compra y alquiler de la vivienda en nuestros municipios están desorbitados. Las declaraciones de zonas tensionadas no son efectivas por sí mismas, ya que el índice de referencia de precios todavía no está totalmente desarrollado por parte del gobierno del Estado. Es imprescindible que nuestras instituciones creen un parque de alquiler público dimensionado a la demanda de vivienda. En Euskal Herria, el acceso popular a una vivienda digna y adecuada, debería ser un derecho efectivo de la ciudadanía como hoy día es la educación y la sanidad.



Hacienda y fiscalidad desde una perspectiva conjunta

En la organización administrativa de la CAV, ya no tiene sentido un modelo fiscal y una hacienda para cada uno de los tres territorios. Como concep-

to nacional, pero sobre todo por eficiencia y eficacia, es más racional plantear una propuesta conjunta y por tanto, común. Y así lo hemos hecho un año más con PNV y PSE, de cara al ejercicio 2026.



Muro de contención ante la ofensiva de la extrema derecha

Estamos frente a una ola autoritaria. El PP está compartiendo el marco y la agenda de VOX en muchas cuestiones.

Una de las más destacables, es el discurso xenóforo en relación a las personas migrantes. Y lo que es más preocupante, es que aquí también lo está haciendo el PNV, quizá porque es posible que haya hecho sus propios cálculos y crea que le sale rentable electoralmente.

Es preocupante ver como el partido de Esteban une sus votos en Madrid a PPVOX y UPN para reforzar Policía y Guardia Civil y acordar políticas ofensivas hacia a las personas migrantes. Y resulta paradójico que el PNV actúe de esa manera cuando su socio de gobierno tiene una opinión absolutamente contraria al respecto, hecho que ha quedado constatado con el centro de refugiados de Arana en Gasteiz. Mientras la Ertzaintza informa de la procedencia de las personas que delinquen, por ejemplo, el ayuntamiento de Gasteiz, con una alcaldesa del PSE, no hace público su origen en los casos del municipio.

Ante esta situación, hay que actuar de muro de contención en todos los ámbitos posibles y reivindicar el antifascismo. También en las calles, como hicimos el pasado 22 de noviembre en las de Bilbao en el 50 aniversario del fusilamiento de Txiki y Otaegi.

Por desgracia, en Euskal Herria conocemos de primera mano las terribles consecuencias del fascismo y la extrema derecha. Por eso es importante que siempre que de nosotras dependa, impidamos su entrada en las instituciones. Así es como

estamos actuando también en Nafarroa, donde además de influir política y socialmente gracias a la negociación presupuestaria, también llevamos 11 años seguidos dejando a UPN fuera del poder.



Debate integral del modelo de seguridad

Urge un debate acerca del modelo de seguridad, pero no puede ceñirse exclusivamente al papel de la Ertzaintza en el caso de la CAV. Ahora bien, actuaciones como las que vimos el pasado 12 de octubre en Gasteiz ante las concentraciones de la Falange, o el cambio de rumbo del actual consejero de seguridad al proporcionar el origen de las personas detenidas, no hace sino demostrar que su modelo de seguridad responde más a las peticiones de la ultraderecha que al sentir de la mayoría de este pueblo. Tenemos que evitar la tentación simplista de relacionar modelo policial con migración, porque elude el problema social subyacente, y debatir de la forma más objetiva y poliédrica posible el modelo de seguridad ciudadana que realmente necesitamos.



Defensa del euskera

Es un disparate que, en un país con dos lenguas cooficiales, haya instituciones públicas que tratan con la ciudadanía, en las que los jueces digan que el funcionariado no tiene que saber euskera. Existe un enfoque político que deriva en una parte jurídica. Ideológicamente, los partidos abertzales estamos de acuerdo: hay que cumplir el derecho que tenemos la ciudadanía euskaldun a que nos atiendan en nuestro idioma en las administraciones públicas. Sin embargo, otros partidos como PSE, socio de gobierno, y Sumar, deberían hacer

ese mismo ejercicio democrático. Y ante el embate judicial contra el euskera, es imprescindible que se hagan planteamientos que nos aporten la mayor garantía y seguridad jurídica posible.



Internacionalismo solidario

Hemos sido ejemplo incluso mundial en la denuncia del genocidio de Israel en Gaza. Sobre todo, con las protestas durante La Vuelta ciclista a principios de septiembre, pero también con la huelga convocada por la mayoría sindical el 15 de octubre, las movilizaciones para denunciar el asalto y secuestro de la Global Summud flotilla, y el partido de fútbol entre nuestra selección y la Palestina en San Mamés, donde el resultado deportivo fue lo de menos. El acuerdo de Egipto de Trump no soluciona el conflicto, con Bruselas postrada a sus pies por intereses económicos. Los ayuntamientos gobernados por EH Bildu decidieron romper todas las relaciones con Israel. Además, seguimos reivindicando el derecho de autodeterminación para el Sahara, a pesar de que la ONU haya avalado el plan de autonomía de Marruecos que lo considera territorio marroquí, precisamente un tema que trata en profundidad este número de la revista.

Eba Blanco de Angulo
Secretaria General de Eusko Alkartasuna.

Euskal hezkuntza sistema, euskara eta segregazioa. Non dago Hezkuntza Saila?



Hezkuntza-sistema jendarte ororen ezinbesteko tresna da belaunaldi berriak sozializatzeko eta gizarte-kohesioa lortzeko. Ildo horretan, euskal hezkuntza-sistemak, ezinbestez, euskal kultura zein hizkuntza transmititzeko ardura dauka. Xede hori kontuan hartuta, ezin uka daiteke Euskal Eskola Publikoak zein Ikastolek euskararen normalizazioaren eta euskal kulturaren transmisioaren alde egin duten lan eskerga. Biek, bakoitzak bere testuingurutik, funtsezko ekarpena egin dute gure hizkuntza eta kultura biziberritzeko. Hala ere, lorpen historiko horiek ez digute gaur egungo errealitate gordina ezkutatu behar: eskola-segregazioa egiturazko arazo bihurtu da gurean, eta honek arriskuan jartzen du bai gizarte-kohesioa, bai eta euskararen etorkizuna bera ere.

Egungo datuek (Save the Children, 2018, 2022; Murrillo et al., 2017) erakusten dute Euskal Autonomia Erkidegoa dela estatu mailan jatorriaren arabera segregazio-tasa altuena duen lurraldea. Segregazio sozioekonomikoari dagokionez, 2.a da, Madrilgo komunitatearen atzetik. Egoera honek galdera zuzena planteatzen digu herri gisa: Administrazio publikoak zer nolako ereduak sustatu du azken urte hauetan, non gure ikasleak jatorriaren eta klasearen arabera bereizten ari diren?



Hizkuntza-ereduak eta segregazioaren dinamikak

Alkorta eta Shershneva (2021) ikertzaileek ongi azpimarratu bezala, gure sistemaren titulartasun bikoitzak eta hizkuntza-ereduen egituraketak segregazio-dinamikak elikatzen dituzte. Administrazioak “laissez-faire” edo esku-hartze ezaren politika bat mantendu du, merkatuaren logikari bide emanez hezkuntza bezalako eremu estrategiko batean.

Honek fenomeno kezkarri bat ekarri du: eskola publikoetatik white flight edo klase ertainen ihesa (Kye, 2018). Hainbat kasutan, familia euskaltzale askok, beren seme-alabentzako ziurtatutako ingurune euskaldun bat bilatu nahian, eskola publikoa hautatu ordez Ikastola hautatzen dutela erakutsi dute. Eskuaratean dudak eta orain burutzen ari naizen ikerketa kualitatiboak erakusten duenez, pertzepzio sozial bat errotuta dago hainbat familietan: Ikastola euskararen “babegune” gisa ikusten da, eta Eskola Publikoa, berriz, “erronka” edo zailtasun gisa. Nolanahi, zabaldua dagoen irudia edo pertzepzioa da Ikastolak euskararen jakintza zein giro euskaldun bat ziurtatzeko gaitasuna duela eta Eskola Publikoak zailtasun edo gabeziak dituela euskara bermatzeko.



Administrazioaren erantzukizuna: sorgin-gurpil linguistikoa

Hemen datza Administrazioaren erantzukizun politiko eta estrategiko nagusia. Erakunde publikoek ez dute bermatu sare publikoak behar dituen ba-

liabideak eta prestigioa, Ikastolekin batera, Euskal Eskola Publikoa ere euskararen “arnasgune” soziolinguistiko eraginkorra izateko. Ondorioz, “sorgin-gurpil linguistiko” bat sortu da: familia euskaldunek sare publikoa uzten badute hizkuntza-segurtasunaren bila, eskola horien euskalduntze-ahalmena ahuldu egiten da, eta euskara kohesio-tresna izan beharrean, bereizketa sozialerako iragazki bihurtzeko arriskua du.

Posey-Maddox (2014) bezalako autoreek gogorazten digute klase ertainek eskola publikoaren alde egiten dutenean, aniztasunaren eta justizia sozialaren balioak indartzen direla. Baina hautu hori ezin da familien bizkar soilik utzi; herri-estrategia bat behar du atzean.



Ondorioa: herri ituna eta esku-hartze publikoa behar dugu

Ezin dugu onartu bi abiadurako euskal jendarterik. Euskara eta aniztasuna txanpon beraren bi aldeak izan behar dira. Administrazioak, kasu honekin, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, lidergo sendoa hartu behar du ikasleen banaketa orekatua bermatzeko, sareen arteko lehia antzutik haratago joateko eta lankidetzat sustatzeko.

Euskal Eskola Publikoari bere zentralitatea eta prestigioa aitortu eta eman behar zaio, ez bakarrik zerbitzu unibertsal gisa, baizik eta euskal gizarte moderno, anitz eta euskaldunaren erreferente gisa. Administrazioaren betebeharra da bermatzea edozein familiak, aukeratzen duen sarea aukeratzen duela, euskal kulturen murgildutako kalitatezko hezkuntza-proiektu euskaldun eta kalitatezkoa jasoko duela. Segregazioaren zirkulua haustea ez da soilik justizia sozialeko kontua; euskararen biziraupenerako eta herri-proiektuaren bideragarritasunerako ezinbesteko baldintza ere bada.



Iban Asenjo Garde

EHUko Hezkuntza Zientzietako irakaslea eta Eusko Alkartasunako Hezkuntza, Euskara eta Kultura idazkaria.

“Seguimos y seguiremos luchando con todo lo que tenemos, hasta conseguir que el pueblo saharaui sea libre”

Mohamed Fadel Brahim. Delegado del Frente Polisario en Euskadi



La organización Colectivo de Defensores Saharaui de Derechos Humanos en el Sáhara Occidental (CODESA) publicó a mediados de noviembre un informe en el que documenta 38.041 crímenes contra la población saharaui por parte de Marruecos. Se registran casos de desapariciones forzadas prolongadas, ejecuciones y muertes bajo custodia, tortura institucionalizada, castigos colectivos y desplazamientos forzados, así como saqueo de recursos naturales y discriminación económica estructural.

Apenas quince días antes, a finales de octubre, el Frente Polisario, a través de su secretario general y presidente de la República Árabe Saharaui Democrática, Brahim Ghalí, presentó al secretario general de la ONU, una carta sobre su propuesta ampliada para una solución política mutuamente aceptable, que prevea la libre determinación del pueblo del Sáhara Occidental, para restablecer la paz y la estabilidad en la región. En el documento, el Frente Polisario asegura que sigue dispuesto a “compartir los costes de la paz con la otra parte, si tiene la voluntad política de hacer lo mismo”. La propuesta tiene por objeto permitir que el pueblo saharaui ejerza su derecho inalienable a la libre determinación mediante un referéndum supervi-

sado por las Naciones Unidas y la Unión Africana, y transmitir la disposición del Estado Saharaui a negociar con el Reino de Marruecos el establecimiento de relaciones estratégicas y mutuamente beneficiosas entre los dos países.

En Euskal Herria, la gran mayoría de las opciones políticas apoyan el derecho de autodeterminación del pueblo saharaui.

Desde la revista Alkartasuna, hemos querido actualizar en qué punto se encuentra el conflicto del Sahara Occidental, y para ello, entrevistamos al Delegado del Frente Polisario en Euskadi, Mohamed Fadel Brahim.

El Consejo de Seguridad de la ONU respaldó a principios de noviembre con 11 votos a favor y 3 abstenciones (Rusia, China y Pakistán) el plan de autonomía de Marruecos, marginando el derecho de autodeterminación del Sahara. ¿Qué supone políticamente esta votación para el pueblo saharaui?

Primero de todo quiero agradecer el apoyo que históricamente han dado al pueblo saharaui, y la oportunidad de poder contar nuestra situación en esta revista. Antes de responder directamente a la pregunta, déjeme explicar a sus lectores que estamos en una fase muy compleja, en la que todas las corrientes aprietan y, por tanto, hay muchas presiones. Pero he de recordar que hay resoluciones importantísimas en el derecho internacional a favor de los derechos del pueblo saharaui. Por ejemplo, el Tribunal de Justicia de la Unión Europea indica que Marruecos no tiene derecho a negociar con los recursos del Sahara Occidental. Por su parte, La Corte Internacional de Justicia de La Haya, de la ONU reconoce el derecho de autodeterminación del Sahara Occidental. La Unión Africana, de la que la República Árabe Saharaui Democrática somos miembros fundadores, respalda las mismas tesis, Las Naciones Unidas reconocen que el Frente Polisario es el representante legítimo del pueblo saharaui, y la República Saharaui está reconocida por más de 80 países. Yendo a su pregunta.

El Consejo de Seguridad de la ONU se reúne dos veces al año, en abril y en octubre, para hacer seguimiento del Sahara Occidental. Pues bien, había mucha presión por parte de las potencias mundiales para tratar únicamente la propuesta marroquí. Para que la autonomía dentro de Marruecos fuera la única vía posible, e incluso para eliminar de una vez y para siempre la MINURSO, es decir, la misión de paz de la ONU para el referéndum del Sahara Occidental. Después de una negociación muy dura hemos conseguido que ninguno de estos tres objetivos se cumpla. No han logrado sacar el conflicto del marco de Naciones Unidas. Aunque está siendo una fase muy dura, el derecho de autodeterminación del pueblo saharaui no se ha descartado definitivamente.

Ez dute gatazka Nazio Batuen esparrutik ateratzea lortu. Oso fase gogorra izaten ari den arren, herri sahararraren autodeterminazio eskubidea ez da behin betiko baztertu

En marzo de 2022 España, en un giro de 180 grados, anunció que abandonaba el apoyo al referéndum de autodeterminación y pasaba a apoyar que el Sahara Occidental fuera parte de Marruecos como una autonomía. En los foros de geopolítica argumentan que el cambio se debe a las negociaciones de España por las que Marruecos relajaría la exigencia sobre las aguas territoriales de las Islas Canarias y de Ceuta y Melilla, elevaría el control de la inmigración y el yihadismo en sus fronteras, y además se facilitaría que el gas argelino y el hidrógeno verde llegara a Europa ¿Por qué cree usted que España ha cambiado de postura?

El cambio es por el giro que el presidente Pedro Sánchez ha querido dar. Él sabe que algunos del PSOE no apoyan su gobierno y gran parte de sus aliados mundiales no compartían esa postura. Tuvimos contactos con otros dirigentes socialistas

anteriores y han apoyado la causa del pueblo saharaui, a pesar de que también sufrieron enormes presiones por parte de Marruecos. No podemos olvidar que España tiene responsabilidades históricas porque oficialmente para la ONU, es la autoridad administradora del Sahara Occidental. Y por supuesto, estoy de acuerdo en que existen enormes intereses económicos y políticos. Los inversores tienen sus temores si no obtienen seguridad.

Espainiak erantzukizun historikoak ditu, ofizialki NBERentzat Mendebaldeko Sahararen administrazio-agintaritza baita. Eta, jakina, ados nago interes ekonomiko eta politiko izugarriak daudela

Aunque en 1991 se alcanzó un alto el fuego, en noviembre de 2020 se registraron combates entre el ejército de Marruecos y el Frente Polisario. Declararon la guerra de liberación del pueblo saharaui. ¿Sigue habiendo violencia hoy día?

Sí, lamentablemente seguimos estando en guerra. No amamos la guerra, más bien todo lo contrario, pero ¿qué te queda cuando te quitan tu país y tu tierra? Marruecos desafía sin escrúpulos la legalidad internacional. Incumple todas las resoluciones. No nos queda otra que luchar con todo lo que tenemos. Por las vías legales y por las no legales. Seguiremos negociando y luchando.

Marruecos que controla el 80% del territorio del Sahara Occidental, se garantiza la política exterior, la defensa, la bandera y la moneda. ¿Cómo es en 2025, el día a día de la población saharaui?

En los territorios ocupados no tenemos derecho a nada. Tenemos penas de prisión militar y política, así es que, como es sabido, tenemos presos políticos. Por si esto fuera poco, Marruecos sigue explotando todas nuestras riquezas y recursos. El régimen de Mohamed VI es totalitario y no nos podemos fiar. El rey de Marruecos debe respetar los derechos humanos, pero en su propio país

sus súbditos se manifiestan para pedirlos y no les hace caso. Si no lo hace con los marroquíes, con nosotros menos. Esta es la realidad que sufrimos, y es terrible.

Lurralde okupatueta ez dugu ezertarako eskubiderik. Espetxealdi militar eta politikoko zigorrak ditugu, beraz, jakina denez, preso politikoak ditugu. Hori gutxi balitz, Marokok gure aberastasun eta baliabide guztiak ustiatzen jarraitzen du

Se cumplen 50 años de la marcha verde. Organizada por la CIA y financiada por Arabia Saudí. Más de 300.000 civiles y 25.000 soldados marroquíes, por orden de Hasan II, invadieron el Sáhara Occidental para que España cediera terreno, alterar su población natural y por tanto su censo en el caso de un referéndum de autodeterminación. ¿El pueblo Saharaui ha sido y es el gran perjudicado de los intereses geopolíticos de las potencias?

Totalmente. En todos los aspectos. Pero el tema es cómo seguir luchando contra ello, no reconocerlo y ya está. Hemos tenido altibajos de todo tipo. Han intentado eliminarnos totalmente de la faz de la tierra. Pero nuestra fuerza de voluntad, por un lado, y el apoyo solidario desde todo el mundo y en especial de Euskal Herria, por otro, y desde todas las instituciones posibles, hace que sigamos luchando. Y seguiremos hasta conseguir nuestros objetivos.

¿Por qué no dejan que el Sahara Occidental sea libre? Permítame la simplificación: ¿qué quieren, fosfatos?

Sin duda. Fosfatos y muchas más cosas. Detrás de todo están los intereses económicos y los estratégicos. La guerra que mantienen Marruecos y Argelia. Si Marruecos tiene el Sáhara Occidental, empezará a soñar con un gran imperio alauita. Antes

que el Sáhara, reclamó Mauritania y parte de Argelia. Sería su imperio soñado. Pero las resoluciones internacionales dicen bien claro que debe respetar las fronteras heredadas del colonialismo.

Gure Herria ezabatzen saiatu dira. Baina gure borondate indarrak, alde batetik, eta mundu osotik eta bereziki Euskal Herritik, bestetik, eta erakunde posible guztietatik jasotako elkartasun babesak, gu borrokan jarraitzea eragiten du

Jorge Dezcallar, un ex director del CNI aseguró en la Cope que Trump, al final de su anterior mandato, inició este proceso actual en los acuerdos de Abraham. Marruecos le pidió el Sáhara Occidental para reconocer al Estado de Israel. ¿Está de acuerdo? ¿Estados Unidos está detrás?

Sí. Están EEUU y los franceses, y el grupo de Pedro Sánchez. Como sabrán, Marruecos fue colonia francesa y ya estaban en la región antes que los norteamericanos. Francia estaba perdiendo fuerza en África. Las relaciones con Argelia siempre han sido delicadas y lo han negociado con Trump.



© UNHCR-ACNUR

Euskal Herria históricamente ha estado al lado del pueblo saharaui, como al lado del palestino, y al de todos los pueblos oprimidos del mundo. ¿Qué podemos hacer desde aquí que llegue allí, que sea efectivo?

Pues mire, La UE va a firmar próximamente un acuerdo con Marruecos, que para que sea efectivo, debe aprobarse en el parlamento europeo. En

resumidas cuentas, ese acuerdo tiene el objetivo final de que Marruecos pueda negociar con los recursos del Sáhara Occidental, por mucho que el Tribunal de Justicia diga que no tienen derechos sobre el territorio. Les pedimos que hagan fuerza para obstaculizar la aprobación y que no se vote a favor.



Fechas clave para entender el conflicto del Sáhara Occidental

- **1885.** En plena carrera colonialista de las potencias europeas, España reclama el Sáhara Occidental.
- **1934.** España ocupa completamente el Sáhara Occidental.
- Tras la Segunda Guerra Mundial, la ONU promueve una campaña de descolonización. Las potencias europeas otorgan la independencia a una gran cantidad de países africanos. Francia y España dan la independencia a sus protectorados de Marruecos. Recuperada su soberanía, Marruecos se apresura a reclamar el Sáhara Occidental, también reclamado por Mauritania, recién independizado de Francia.
- **Finales de 1960.** La ONU recomienda la descolonización del Sáhara Occidental. Franco no accede. Surge el movimiento de liberación de Saguia el Hamra y Río de Oro y se da el estatus de provincia española al Sáhara Occidental con lo que todo el pueblo saharaui recibe la nacionalidad española.
- **1970.** La ONU aprueba la celebración de un referéndum en el Sáhara Occidental. España se niega inicialmente, pero finalmente accede y lo fecha para 1975. Marruecos se niega al plebiscito.
- **1973.** Se funda el Frente Polisario. Autodenominado grupo de liberación nacional que lucha por la autodeterminación del pueblo saharaui.
- **1975.** Marruecos organiza la Marcha Verde y ocupa el Sáhara Occidental. La ONU rechaza la marcha, pero Estados Unidos y Francia dan su visto bueno.
- **1976.** En virtud de los acuerdos de Madrid de un año antes propiciados por Juan Carlos de Borbón, España abandona el Sáhara Occidental. Se proclama la República Árabe Saharaui Democrática.
- **1979.** Mauritania renuncia al Sáhara Occidental.
- **1991.** El Frente Polisario y Marruecos firman un alto el fuego. La ONU despliega en la zona la misión de paz MINURSO.
- **2020.** Vuelven los combates entre el Frente Polisario y Marruecos. El Frente Polisario anuncia que comienza la guerra de liberación del pueblo saharaui.
- **2022.** España anuncia que aboga por integrar el Sáhara Occidental en Marruecos con un alto grado de autogobierno.
- **2025.** El Consejo de Seguridad de la ONU respalda el plan de autonomía de Marruecos.



alkartasuna
fundazioa

alkartasunafundazioa.eus • info@alkartasunafundazioa.eus



@alkartasun



euskoalkartasuna.eus • info@euskoalkartasuna.eus



@ealkartasuna



@euskoalkartasuna

ARABA

San Frantzisko kalea, 22 • 01001 • GASTEIZ
Tel. 945 23 27 62
araba@euskoalkartasuna.eus

BIZKAIA

Areatza, 2-3 • 48005 • BILBAO
Tel. 94 416 10 33
bizkaia@euskoalkartasuna.eus

GIPUZKOA

Portuetxe 14, 3. 6. bul • 20018 • DONOSTIA
Tel. 943 02 01 30
gipuzkoa@euskoalkartasuna.eus

NAFARROA

Plaza del Castillo, 49 – 1º • 31001 • IRUÑA
Tel. 948 22 06 91
nafarroa@euskoalkartasuna.eus

IPARRALDE

34 Rue Pannecau • 64100 • BAIONA
Tel. 05 59 25 50 98
iparralde@euskoalkartasuna.eus